

BALIOA SORTZEA

Franclean Box produktuaren bidez, belaunaldi berrien birziklatze konpromiso faltak sortutako arazoa konponduko dugu. Izan ere, gazteenen kontzientzia faltak sekulako natura hondamendia eragiten du. Berotze globala, uraren kalitate falta, mikroplastikoen etengabeko agerpena arrainen sabeletan etab. dira arazo horien adibide aipagarrienak. Arazo horiek guztiak konpontzeko ezinbestekoa da ume eta txikien heziketa egokia, gure etorkizuna dira eta. Horretarako, gure proiektuaren bidez organikoa birziklatzeko beharra ere aseko dugu.

Esanak esan, gure produktuak ez dakar berritasunik edukietan, bai formetan, ordea; institutueta eta ospitaleetara fokatu izana izango da nobedade nagusia. Beraz, nobedadea produktua bera izateaz aparte, garrantzi handikoa izango da umeen birziklatze kontzientzia piztea, naturarekin konpromisoa bultzatuz.

Gure helburua, birziklatzerakoan lana erraztea ere bada. Eskuragarritasunak desberdintzen gaitu gainerako konpost enpresetatik. Gure bezeroak ikasleak eta ospitaleetako umeak direnez, zentro publikoetan eta ospitaleetan konpostontziak eskuragarri edukiko dituzte .

Hori lortzeko, ikerlari-talde handi bat martxan daukagu, eta horiek egiten dabilzan aurrerapenei esker, badakigu ongarria lortzeko denbora murriz daitekeela material eta teknika jakin batzuk erabilia. Beraz, balioaren proposamenaren baitan, denbora aurrezteka ere egongo da.

Arestian aipatutako helburuetaz gain, beste helburu garrantzitsu bat ere edukiko dugu, natura errespetatzea eta zaintzea, hain zuzen ere. Zer esanik ez, institutu zein ospitaleetan produzitutako ongarria zenbait ekintzatarako erabiliko dute umeek; landareen hazkuntza laguntzeko esaterako (institutuko lorategian edo ondoko parkeetan). Baina horretaz aparte, soberan dagoen ongarria batzeko aukera bermatuko du enpresak. Konpost soberakinari dagokionez, auto batek ongarri soberakinak batu eta Leioa inguruko baserritarrei salduko dizkio prezio oso baxuan, zentro publiko eta ospitale horietatik soberakinak biltzeko ordainduko dugun gasolinaren prezioa konpentsatzeko.

